

JARDUERAK

Argi dago, edozein negozio eredu aurrera eramateko zenbait jarduera burutzea beharrezkoa dela. Besteak beste, balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko. Helburu horiek lortzeko jarduerak hirutan banatzen dira; produkzioa, arazoan konponketa eta plataforma edo sarearen ingurukoak.

Gure kasuan, produkzioaz arduratzen den enpresa batekin elkarlanean gaudenez, ez dugu jarduera hori burutuko. Bestalde, arazoan konponketak eta plataforma edo sarearen ingurukoak jardungo ditugu.

Alde batetik, suertatu daitezkeen arazoei aurre egingo diegu gure jakituriarekin. Adibidez, jada gertatu zaigu, azkeneko momentuan gure banatzaile baten bizikleta hondatu egin dela, eta honen aurrean, alkilatze eskuragarri dauden bizikletetako bat alkilatu dugu. Gainera, osakidetzarekin lan egingo dugu hauek gure langileen segurua eskainiko baitigute.

Beste aldetik, Uma Otezabal, webguneak sortzen aditua den enpresako ekintzatzaileak beste hainbat jarduera aurrera eramango ditu enpresaren web-a sortzeko. Adibidez, hainbat modelo ezberdin sortuko ditu, ahalik eta erabil errazena aurkitzeko. Aldi berean, astero eguneratu behar den horretan jardun hori hartuko du Umak.

Enpresa txikia garen horretan, gure jarduerak ez dira oso zabalak, baina hazten goazen heinean, gure jarduerak ere hazi egingo dira.